

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:	2009/18/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko apirilaren 23koa, itsas garraioaren sektoreko istripuen ikerketa zuzentzen duten oinarrizko printzipioak ezarri eta Kontseiluaren 1999/35/EE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/59/EE Zuzentaraua aldatzekoa.
--------	---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DIRECTIVA 2009/18/EE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, por la que se establecen los principios fundamentales que rigen la investigación de accidentes en el sector del transporte marítimo y se modifican las Directivas 1999/35/CE del Consejo y 2002/59/CE del Parlamento Europeo y del Consejo» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 131, 2009.5.28koa)

2009/18/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2009ko apirilaren 23koa,

itsas garraioaren sektoreko istripuen ikerketa zuzentzen duten oinarrizko printzipioak ezarri eta Kontseiluaren 1999/35/EE Zuzentzaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/59/EE Zuzentzaraua aldatzekoa

(Testu egokia EERi dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO
KONTSEILUAK,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatua eta, bereziki, haren 80.
artikuluko 2. paragrafoa aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote eta Adiskidetze Komiteak 2009ko otsailaren 3an onartutako testu bateratua aztertu dute ⁽³⁾,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute

⁽¹⁾,

² C 229 EO, 2006.9.22koa, 38. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko apirilaren 25ekoa (C 74 E EO, 2008.8.30ekoa, 546. or.), Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2008ko ekainaren 6koa (C 184 E EO, 2008.7.22koa, 23. or.). Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko irailaren 24koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea); Kontseiluaren Erabakia, 2009ko otsailaren 26koa; eta Europako Parlamentuaren legegintzako Ebazpena, 2009ko martxoaren 11koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

¹ C 318 EO, 2006.12.31koa, 195. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (1) Beharrezkoa da Europako itsas garraioan segurtasun-maila handiari eustea eta era guztietako neurriak hartzea itsas istripuen eta jazoeren kopurua murrizteko.
- (2) Itsas ezbeharrei buruzko ikerketa teknikoak arduraz gauzatzeak itsas segurtasuna hobetzen du, horrelako istripuak prebenitzen laguntzen baitu, eta kontuan izan behar da istripuek hildakoak sortzen dituztela, ontziak galtzea eragiten dutela eta itsas ingurumena kutsatzen dutela.
- (3) Itsas segurtasuna indartzeari buruzko 2004ko apirilaren 21eko ebazpenean ¹, Europako Parlamentuak Batzordeari eskatu zion itsas istripuak ikertzeari buruzko zuzentzarau-proposamena aurkez zezala.
- (4) 1982ko abenduaren 10eko Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioko (aurrerantzean, «UNCLOS») 2. artikuluan araututakoaren arabera, itsasertzeko estatuak eskubidea du bere jurisdikziopeko uretan gertatzen den ezein itsas jazoera ikertzeko, baldin eta gizakiontzako edo ingurumenarentzako arriskutsua izan badaiteke, edo itsasertzeko estatuko salbamendu- edo bilatze-agintariak parte hartu badute, edo estatu horri edozein modutan eragiten badio.
- (5) UNCLOSeko 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, banderako estatu guztiek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, behar bezala kalifikatutako pertsona bat edo batzuek ikertzeko itsas zabalean gertatzen diren nabigazio-ezbehar edo jazoera guztiak edo, bestela ere, horiek izan daitezen ikerketen buru.
- (6) Araudi hauek ezartzen dute banderako estatuak obligazioa dutela ezbeharren ikerketa gauzatzeko eta Nazioarteko Itsas Erakundeari (IMOri) dagokion emaitzen berri emateko; Itsasoan giza bizitza babesteko nazioarteko Hitzarmenaren I/21 arauak, 1974ko azaroaren 1ekoak (aurrerantzean «SOLAS 74» esango diogu); Karga-marren nazioarteko Hitzarmenak, 1966ko apirilaren 5ekoak; eta Itsasontziek sortutako kutsadura prebenitzeko nazioarteko hitzarmenak, 1973ko azaroaren 2koak.
- (7) IMOren derrigorrezko tresnak aplikatzeko Kodeak –IMOren 2007ko azaroaren 29ko biltzarrari buruzko A.96(25) Ebazpenaren eranskin denak– gogora ekartzen du banderako estatuak derrigorturik daudela bermatzera itsas segurtasunaren arloko ikerketak behar bezala kalifikatutako ikertzaileek gauzatuko dituztela, itsas ezbeharrekin eta jazoerekin lotura duten auzietan aritzeko gaituta daudenak.
- (8) Kontuan hartu behar da Ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko Kodea (IMOren 1997ko azaroaren 27ko biltzarraren A.849(20) ebazpenari erantsirik dago, eta aurrerantzean «Itsas ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko IMO Kodea» deituko diogu). Kode horren bidez, besteak beste, ikuspuntu komuna ezarri da itsas ezbeharrei nahiz jazoerei buruzko segurtasun-ikerketan, eta jaso da estatuak lankidetzan jardungo dutela, zehazteko zer faktorek eragiten eta sortzen dituzten horrelako ezbeharrak nahiz jazoerak. Kontuan hartu behar dira, baita ere, IMOren 1997ko azaroaren 27ko biltzarreko A.861(20) Ebazpena eta IMOren Itsas Segurtasuneko Komitearen 2004ko maiatzaren 17ko MSC.163(78) Ebazpena. Biek ala biek ematen dute «zeharbideko datuen erregistradoreari» buruzko definizioa.
- (9) Itsasoan aritzen direnak langileen kategoria berezi moduan hartu dira eta, kontuan izanik nabigazio-industria globalizatua dela eta kontaktuan egon daitezkeela hainbat jurisdikzioekin, babes berezia behar dute, batez ere, agintari publikoekin dituzten kontaktuei dagokienez. Itsas segurtasuna areagotze aldera, itsasoan aritzen direnek ziur izan behar dute bidezko tratua jasoko dutela itsasoan istripurik gertatuz gero. Uneoro bete behar dira itsasoan aritzen direnen giza eskubideak eta haien duintasuna errespetatu. Eta segurtasunari buruzko ikerketa guztiak egin behar dira bidezkotasunez eta arduraz. Hori dela eta, estatu kideek –estatuak lege diekin bat etorri– kontuan izan behar dituzte, hein handian, itsasoan istripurik gertatuz gero eskifaiarekiko bidezko tratuari buruzko IMOren Jarraibideetako dagozkien xedapenak.
- (10) Estatu kideek, bakoitzak bere ordenamendu juridikoaren esparruan jardunez, istripua gertatu ondoko lekukoan adierazpenak babestu behar dituzte, eta eragotzi segurtasun-ikerketek bestelako xedeetarako erabiltzen direla. Neurri horren xedea da galaraztea ikerketetan parte hartu izanagatik inork lekukoan kontra ezein errepresalia edo neurri diskriminatzaile hartzea.
- (11) 1999ko apirilaren 29ko Kontseiluaren 1999/35/EE Zuzentzaraua ⁽²⁾, ibilgailuen transbordadoreen eta bidaiariak eramateko abiadura handiko ontzien zerbitzu erregularretako esplotazioan segurtasuna bermatzeko derrigor gauzatu behar diren azterketen araubideari buruzkoa betetze aldera, estatu kideek legezko estatutua zehaztu behar dute haien ordenamendu juridikoetan, aukera emateko bai haiei, baita interes handiak jokoan dituzten beste estatu kide batzuei ere, parte-hartzeko, lankidetzan aritzeko edo –itsas ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko IMOren Kodean hala aurreikusita badago– ikertzeko itsas ezbehar edo jazoera oro, betiere, tartean baldin bada ibilgailuen transbordadorerik edo bidaiariak garraiatzeko abiadura handiko itsasontzirik.

¹ C 104 E EO, 2004.4.30ekoa, 730. or.

² L 138 EO, 1999.6.1ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (12) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 27ko 2002/59/EE Zuzentarauak, Erkidegoan itsas trafikoari buruzko jarraipen- eta informazio-sistema ezartzeari buruzkoak⁽¹⁾, agintzen du estatu kideek bete egin behar dutela itsas ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko IMO Kodean xedatutakoa, eta bermatuko dutela istripuei buruzko ikerketen emaitzak ikerketa amaitu eta ahalik eta lasterren argitaratzen direla.
- (13) Berealdiko garrantzia du, ezbeharren edo jazoeren inguruabarrak eta zioak eraginkortasunez zehazte aldera, inpartzialtasunez gauzatzea, portuetan edo bestelako itsas eremu mugatueta gertatu diren ezbeharren nahiz jazoeren segurtasunari buruzko ikerketak. Horrenbestez, ikerketak ikertzaile kualifikatuek gauzatu behar dituzte, beharrezko eskumenak dituen erakunde independente baten zaintzapean, inolako interes-gatazkarik ez gertatzeko.
- (14) Estatu kideek zaindu beharko dute, ikerketa judizialaren agintaritzaren arduradunen eskumenei buruzko beren legeen arabera eta, hala dagokionean, agintaritzaren horiekin lankidetzan, ikerketa teknikoaren arduradunek ahalik eta baldintzarik onenetan gauzatzen dutela haien egitekoa.
- (15) Zuzentarau honek dioena dioela ere, bete egin beharko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentzaraua ⁽²⁾, datu pertsonalak tratatzearen eta datu horiek libreki zirkulatzearen aurrean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.
- (16) Estatu kideek bermatu behar dute beren ordenamendu juridikoak aukera emango diela –beraiei nahiz interes handiak jokoan dituzten beste estatu kideei– istripuen ikerketa gauzatzeko, ikerketan parte-hartzeko edo laguntza eskaintzeko, betiere itsas ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko IMOren Kodean ezarritakoaren arabera.
- (17) Printzipioz, itsas ezbehar edo jazoera bakoitzari buruz ikerketa bakarria egin behar da, estatu kide batek bakarrik edo estatu kide ikertzaile nagusiak interes handiak jokoan dituzten beste estatu kideen laguntzarekin gauzatu. Egoki justifikatutako kasu berezietan, bi estatu kide edo gehiago tartean direnetan –banderako estatuarekin, ezbeharra gertatu den tokiarekin edo biktimen nazionalitatearekin loturatako arrazoiak direla eta–, ikerketa paraleloak gauza daitezke.
- (18) Estatu kide batek beste baten esku utz dezake itsas ezbehar edo jazoera baten segurtasunari buruzko ikerketaren (aurrerantzean «segurtasun-ikerketa») ikertzaile nagusi izateko funtzioa, bai eta ikerketaren eginkizun zehatz batzuek ere, biek hala erabaki eta adostu badute.
- (19) Estatu kideek haien esku dagoena egingo dute ezer ez kobratzeko, bi estatu kide edo gehiagok parte hartzen duten segurtasun-ikerketak direla-eta, eskatu duten laguntzaren gastuengatik. Beharrezkoa baldin bada segurtasun-ikerketan parte hartzen ez duen estatu kide baten laguntza, estatu kideak ados jarriko dira horrek sortutako gastuak ordaintzeko moduaren inguruan.
- (20) SOLAS 74ko V/20 araua betez, bidaiari-ontziek eta 3.000 tona gordin edo hortik gora duten eta 2002ko uztailearen 1az geroztik egin diren ontzi guztiek izan behar dute zeharbidetako datuak erregistratzeko sistema, istripuak ikertzea errazago izan dadin. Kontuan izanik horrelako ekipamenduak itsas istripuak prebenitzeari buruzko politika lantzeko biziki garrantzitsuak direla, komeni da sistematikoki eskatzea ontzietan instalaturik egoteko, estatu barruko bidaietarako edo erkidegoko portuetan geldialdiak egiten dituzten nazioarteko bidaietarako.
- (21) Zeharbidetari buruzko datuak erregistratzeko sistemek edo bestelako dispositibo elektronikoek biltzen dituzten datuak erabil daitezke bai atzera begira, hau da ezbehar edo jazoeraren bat gertatu eta haren zioak ikertzeko, bai prebenitzeko, hau da hizpide ditugun egoerak zer inguruabarrek sortzen dituzten jakiteko. Estatu kideek zaindu beharko dute datuak –daturik badago–zuzen erabiltzen direla aipatu berri ditugun bi xedebetarako.
- (22) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1406/2002 (EE) Erregelamenduan ⁽³⁾ xedatutakoarekin bat etorritik, Itsas Segurtasuneko Europako Agentziak (aurrerantzean, «Agentzia») lankidetzan aritu behar du estatu kideekin Erkidegoko legeak aplikatzeko irtenbide teknikoak garatzeko eta laguntza tekniko eskaintzeko. Itsas istripuak ikertzeari dagokionez, Agentziaren egiteko zehatza da estatu kideen eta Batzordearen arteko elkarlana erraztea, nazioarteko printzipio adostuen arabera itsas istripuak ikertzeko metodologia bateratua garatzeko, estatu kideen ordenamendu juridikoak errespetatuz, betiere.
- (23) 1406/2002 (EE) Erregelamenduen arabera, Agentziak lankidetzaren alde dihardu estatu kideek laguntza eskaintzen dutenean, dela ikerketei lotutako jardueretan, dela istripuen ikerketari buruz existitzen diren txostenen azterketetan.
- (24) Segurtasun-ikerketetatik ondorioztatzen den alderdi egoki oro kontuan hartu behar da itsas ezbeharrak edo jazoerak ikertzeko metodologia bateratua garatu edo aldatu nahi denean.
- (25) Estatu kideek eta Erkidegoak kontuan izan behar dituzte segurtasun-ikerketaren ondorioz ematen diren segurtasun-gomendioak.

¹ L 208 EO, 2002.8.5ekoa, 10. or.

² L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or.

³ L 208 EO, 2002.8.5ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (26) Segurtasunari buruzko ikerketa teknikoan helburua itsas ezbeharrak eta jazoerak prebenitzea denez, segurtasunari buruzko ondorioek eta aholkuek ez dute, inoiz, erantzukizuna zehaztuko ezta inori errua egotziko ere.
- (27) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dutela Zuzentarau honen xedea –Erkidegoan itsas segurtasuna hobetzea, harekin batera etorkizuneko ezbeharrak gertatzeko arriskua murrizteko– beren kasa behar bezala lortu, eta ekintzaren munta edo ondorioak handiak direla ikusita, Erkidegoan hobeto bete daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuko 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako heinekotasun-printzipioaren indarrez, Zuzentarau hau ez da helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago joango.
- (28) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki ⁽¹⁾.
- (29) Egokia da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea zuzentarau hau alda dezan, nazioarteko hitzarmenetan, protokoloetan, kodeetan eta zuzentaruari eragiten dioten ebazpenetan etorkizunean egiten diren aldaketak bertan sartzeko. Neurri horiek orokorrak eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.
- (30) Instituzio arteko « Lege hobeak egitea » Akordioaren ⁽²⁾ 34. puntuan arautzen denari jarraiki, estatu kide orok bere taula egin dezan sustatu nahi da, bai eta horiek argitara ditzaten ere, zuzentarau honek eta transposizio-neurriak bat nola datozen erakusteko ahal den neurrian, hori onuragarria izango baita bai estatuentzat, bai Erkidegoarentzat.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1.
artikulua
Xedea

1. Zuzentarau honen xedea da itsas segurtasuna hobetzea eta ontziek eragindako kutsadura prebenitzea, etorkizunean itsas ezbeharrak gertatzeko arriskua murrizteko, honako hauek medio:

¹ L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

² C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) segurtasun-ikerketak arduraz egin daitezzen erraztuz eta, zioak zehazte aldera, itsas ezbeharrak nahiz jazoerak zuzen azter daitezzen erraztuz, eta

b) bermatuz segurtasun-ikerketei buruz txosten zehatzak eta uanean unekoak egingo direla, eta zuzentze-neurrien proposamenak aurkeztuko.

2. Zuzentarau hau betez gauzatzen diren ikerketek ez dute xede izango erantzukizuna zehaztea, ez eta inori errua egotzea. Nolanahi ere, estatu kideek bermatuko dute ikerketa-erakundeak (aurrerantzean «ikerketa-erakunde») ez diola uko egiten itsas ezbeharraren edo jazoeraren zioei buruzko informazio osoa emateari, ikerketaren emaitzen bidez egoz litekeelako erru edo erantzukizun jakin bat.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Zuzentarau hau itsas ezbehar edo jazoera hauei aplikatuko zaie:

a) estatu kideetakoren baten bandera daramaten ontzietan eragiten dietenei;

b) estatuen jurisdikziopeko uretan edo barneko uretan gertatzen direnei, UNCLOSek definitu bezala, edo

c) estatu kideen kontuan hartzeko moduko interesei eragiten dietenei.

2. Zuzentarau hau ez zaie aplikatuko honako hauei soilik eragiten dieten itsas ezbehar eta jazoerei:

a) gerra-ontzietan edo tropak garraiatzeko erabiltzen diren ontzietan eragiten dietenei, edo estatu kide batenak izan edo berak bakarrik ustiatzen dituen ontziak izanik, merkataritzakoak ez diren gobernu-xedeetarako soilik erabiltzen direnei;

b) propulsiorekin ez duten ontzietan edo antzinako ontzien erara egindako zurezko ontzietan eragiten dietenei, hala nola merkataritzarako erabiltzen ez diren yateei eta aisialdiko ontzietan eragiten dietenei, betiere tripulatzailerik ez badute edo edukiko ez badute eta 12 bidaiaririk gora eramaten edo eramango ez badituzte, merkataritzako xedez;

c) barneko bide nabigagarrietan erabiltzen diren barne-nabigaziorako ontzietan eragiten dietenei;

d) 15 metro baino gutxiagoko luzera duten arrantza-ontzietan eragiten dietenei;

e) itsas zabaleko zulatze-unitate finkoei eragiten dietenei.

3. artikulua

Definizioak

Zuzentarau honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira oinarri:

1) «Itsas ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko IMO Kodea»: itsas ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko Kodearen bertsio eguneratua, Nazioarteko Itsas Erakundeak (IMOk) ezarri eta 1997ko azaroaren 27ko IMOren biltzarraren A.849(20) Ebazpenari erantsitako Kodearena;

2) Jarraian aipatuko ditugun terminoak bat datoz itsas ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko IMOren Kodean ageri diren definizioekin:

a) «itsas ezbehar»;

b) «ezbehar oso larri»;

c) «itsas jazoera»;

d) «itsas ezbehar edo jazoera bati buruzko segurtasun-ikerketa»;

e) «Estatu ikertzaile nagusi»;

f) «Interes handiak jokoan dituen estatua»;

3) «ezbehar larria» terminoa bat dator IMOko Itsas Segurtasuneko Komitearen eta Itsas Ingurunea Babesteko Komitearen 2008ko abenduaren 18ko MSC-MEPC.3/Circ.3 zirkularrean ageri diren definizio eguneratuekin.

4) «itsasoan istripurik gertatuz gero eskufaiarekiko bidezko tratuari buruzko IMOren jarraibidea» bat dator LEG.3(91) Ebazpenari erantsitako jarraibideekin (Ebazpena IMOren Komite Juridikoak eman zuen 2006ko apirilaren 27an, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Administrazio Kontseiluak onartu zituen 296. bileran, 2006ko ekainaren 12tik 16ra bitartean).

5) «ibilgailuen transbordadore» eta «bidaiariak garraiatzeko abiadura handiko itsasontzi» terminoak bat datoz 1999/35/EE Zuzentarauko 2. artikuluan zehaztutakoarekin.

6) «zeharbideko datuen erregistradore» terminoa (aurrerantzean «VDR») bat dator IMOko biltzarraren A.861(20) Ebazpenean eta IMOren Itsas Segurtasuneko Komitearen MSC.163(78) Ebazpenean emandako definizioarekin.

7) «segurtasunari buruzko gomendio» gisa hartuko da honako erakunde hauek erregistro eta kontrolerako egindako ezein proposamen:

a) segurtasuna ikertzen ari den edo segurtasunaren ikertzaile nagusiaren funtzioa betetzen duen estatuaren ikerketa-erakundeak ikerketa horretan lortutako informazioa oinarri harturik egiten duen proposamena; edo, hala badagokio,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) datuen analisi laburtua eta egindako segurtasun-ikerketen emaitzak oinarri harturik Batzordeak egiten duen proposamena.

c) ezbehar aipatuek eragina dutenean estatu kidearentzat kontuan hartzeko modukoak diren interesen gain, ezbeharra edonon gertatuta ere eta ontzi inplikatuaren bandera edozein izanik ere.

4. artikulua

Segurtasun-ikerketaren estatutua

1. Estatu kideek, beren ordenamendu juridikoekin bat etorriz, zehaztuko dute zer legezko estatutu duen segurtasun-ikerketak, ikerketak ahalik eta eraginkorren nahiz arinen gauza daitezen.

Estatu kideek bermatuko dute –beren legeriaren arabera eta, hala badagokio, ikerketa judizialaren ardura duten agintariekin elkarlanean– segurtasun-ikerketak:

a) gauzatuko direla erantzukizunak zehazteko edo errua egozteko haiekiko modu paraleloan gauzatzen diren ikerketa penal edo bestelako ikerketekiko independente, eta

b) ez direla behar ez bezala eragotziko, etengo edo atzeratuko, ikerketa paraleloen eraginez.

2. Estatu kideek ezartzen dituzten neurriek, 10. artikuluan adierazitako elkarlanerako esparru iraunkorrarekin bat etorriz, barne hartuko dituzte honako hau egiteko aukera emango duten xedepenak:

a) beste estatu kide batzuek gauzatzen dituzten segurtasun-ikerketetan elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea, baita, 7. artikuluan adierazitakoa betez, beste estatu kide baten esku uztea ere ikertzaile nagusia izatearen funtzioa, eta

b) koordinatzea dagokion ikerketa-erakundeen jarduna, Zuzentarau honen helburua betetzeko beharrezkoa den neurrian.

5. artikulua

Ikertzeko betebeharra

1. Estatu kide bakoitzak zainduko du 8. artikuluan aipatutako ikerketa-erakundeak segurtasun-ikerketa gauzatzen duela, honako baldintza hauek betetzen dituzten itsas ezbehar oso larriak gertatzen direnean:

a) bere bandera daraman ontziren bati eragiten badio, ezbeharra edonon gertatuta ere;

b) ezbeharra estatu kidearen jurisdikziopeko uretan edo barneko uretan –UNCLOS-en definizioen arabera– gertatzen direnean, ezbeharrean inplikaturik dauden ontziak edozein estatutako bandera izanda ere.

2. Gainera, ezbehar larrietan, ikerketa-erakundeak aurretiazko ebaluazioa gauzatuko du, erabakitzeke egoki den ala ez segurtasun-ikerketa egitea. Ikerketa-erakundeak erabakitzen badu ez dela egoki segurtasun-ikerketa gauzatzea, erabakia hartzeko arrazoiak jaso eta jakinaraziko dira 17. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.

Beste mota bateko itsas ezbeharra edo jazoera gertatzen bada, ikerketa-erakundeak erabakiko du egoki den ala ez segurtasun-ikerketa gauzatzea.

Lehen eta bigarren lerroketan aipatutako erabaketan, ikerketa-erakundeak gogoan izango du itsas ezbeharren edo jazoeraren larritasuna, zer ontzi-mota eta zama-mota dauden tartean eta segurtasun-ikerketaren emaitzen bidez etorkizunean gerta litezkeen ezbeharra eta jazoerak prebenitzeko aukera.

3. Ikertzaile nagusia den estatu kidearen ikerketa-erakundeak zehaztuko du, interes handiak jokoan dituzten gainerako estatuetako pareko erakundeekin elkarlanean, segurtasun-ikerketak zer irismen izango duen eta zer modalitate praktiko, eta Zuzentarau honetako xedeak betetzeko eta etorkizuneko itsas ezbehar edo jazoerak prebenitzeko egokien deritzon moduan jokatu du.

4. Segurtasun-ikerketa gauzatzeke, ikerketa-erakundeak itsas ezbeharra edo jazoerak ikertzeko metodologia bateratua erabiliko du, 1406/2002 (EE) Erregelamenduko 2. artikuluko e) idatz-zatia aplikatuz garatutakoa. Ikertzaileek metodologia hori bazter utz dezakete kasu jakin batean: beren irizpide profesionalaren arabera arrazoiz eta ikerketaren xedeak betetzeko beharrezkoa denean. Batzordeak Zuzentarau honetara egokitzeke ezarriko edo aldatuko du metodologia, kontuan izanik segurtasun-ikerketetatik ateratako esperientzia egoki oro.

Neurri horren xedea da Zuzentarau honetako funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea edo Zuzentaraia osatzea, eta 19. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kontrol-dun arautze-prozedura betez ezarriko da.

5. Itsasoko ezbehar edo jazoera gertatu bezain laster ekin behar zaio segurtasun-ikerketa orori eta, betiere, ezbeharra edo jazoera gertatu ondotik bi hilabeteko epea igaro aurretik.

6. artikulua

Jakinarazteko betebeharra

Estatu kide bakoitzak eskatu beharko du, bere ordenamendu juridikoaren esparruan, agintari eskumendunek edo inplikaturik

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

alderdiek bere ikerketa-erakundeari berehala jakinaraztea gertatzen diren eta Zuzentarau honen aplikazio-eremuan bildu diren ezbehar eta jazoera guztiak.

7. artikulua

Segurtasun-ikerketen zuzendaritza eta segurtasun-ikerketetako parte-hartzea

1. Printzipioz, itsas ezbehar edo jazoera bakoitzari buruz ikerketa bakarra egin behar da, estatu kide batek edo estatu kide ikertzaile nagusiak gauzatu, baina interes handiak jokoan dituzten beste estatu kideen laguntzarekin.

Segurtasun-ikerketetan bi estatu kidek edo gehiagok parte hartzen badute, estatu kide horiek elkarlanean arituko dira eta azkar erabakiko dute zer estatu kidek izango duen ikertzaile nagusia izateko funtzioa. Haien esku den guztia egingo dute ikerketa-prozedurak adosteko. Adoste-lan horren baitan, interes handiak jokoan dituzten beste estatu kideek segurtasun-ikerketa gauzatzen ari den estatu kideak dituen eskubide berak izango dituzte eta haren modu berean eskuratu ahal izango dituzte lekukotzak eta frogak. Interes handiak jokoan dituzten estatu kideek, halaber, eskubidea izango dute ikertzaile nagusiaren funtzioa bere gain hartu duen estatu kideak kontuan har dezan haien ikuspuntua.

Itsas ezbehar edo jazoera beraren gaineko segurtasun-ikerketa paraleloak salbuespenezko zenbait kasutan soilik egingo dira. Horrelakorik egiten bada, estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote zergatik egin diren ikerketa paraleloak. Segurtasun-ikerketa paraleloak gauzatzen dituzten estatu kideak elkarlanean arituko dira bata bestearekin. Zehazki, ikerketa-erakunde inplikatuak elkar trukatu beharko dute bakoitzak bere ikerketak gauzatzean biltzen duen informazio egoki guztia, eta bereziki, ahal den neurrian, ondorio bateratuak ateratzeko.

Estatu kideek ez dute hartuko Zuzentarau honen aplikazio-esparruan jasotako segurtasun-ikerketak galarazi, eten edo behar ez bezala geroratu dezakeen inolako neurririk.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa bete egin behar bada ere, estatu kide bakoitzak izango du segurtasun-ikerketaren eta interes handiak jokoan dituzten beste estatu kide batzuekin koordinazioa zaintzearen ardura, estatuek adostu bitartean zein izango den estatu ikertzaile nagusia.

3. Zuzentarau honen eta Nazioarteko Zuzenbidearen arabera hartutako betebeharrak bete egin behar baditu ere, estatu kide batek, bi aldeen arteko akordioaren bidez, bere kabuz utz dezake beste estatu kide baten esku segurtasunaren ikertzaile nagusiaren funtzioa, edo segurtasun-ikerketa gauzatzeko eginkizun jakin batzuk.

4. Itsas ezbehar edo jazoera batean inplikaturik badaude ibilgailuen transbordadore bat edo bidaiariak garraiatzeko abiadura handiko ontzia, estatu honek emango dio hasiera segurtasun-ikerketaren prozedurari: istripua edo jazoera gertatu den uren ardura duen estatuak (jurisdikziopeko ura edo barneko ura izan – UNCLOSek definitu bezala–). Jazoera bestelako uretan gertatzen bada, ontzia egon den azken estatu kideak ekingo dio segurtasun-ikerketaren prozedurari. Estatu hori izango da segurtasun-

ikerketaren arduradun, bai eta interes handiak jokoan dituzten beste estatu batzuekin koordinazioa zaintzearen arduradun ere, estatuek adostu bitartean zein izango den estatu ikertzaile nagusia.

8. artikulua

Ikerketa-erakundeak

1. Estatu kideek bermatuko dute beharrezko gaitasunak dituen ikerketa-erakunde iraunkor eta inpartzialaren ardurapean segurtasun-ikerketak gauzatzeko direla, eta egoki trebatutako ikertzaileek egingo dituztela, hau da, itsas ezbeharrekin eta jazoerekin lotura duten alderdiak lantzeko gai direnek.

Segurtasun-ikerketa inpartzialtasunez gauzatzeko, ikerketa-erakunde independentea izango da haren kargu utzi den betekizunaren kontrako interesak dituzten hirugarrenekiko, bai antolakuntzari, bai egitura juridikoari, bai eta erabakiak hartzeko moduari dagokionez.

Itsas kostalderik eta banderako itsasontzirik ez duten estatu kideek erreferentziatzeko erakunde independente bat zehaztuko dute, 5. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian zehaztutakoa betez ikerketan laguntzeko.

2. Ikerketa-erakundeak zainduko du ikertzaileek badituztela ohiko eginbeharren berezko gaiei buruzko jakintzak eta esperientzia praktikoa. Horrez gain, bermatuko du, beharrezkoa izango balitz, erraz eskura ditzaketela jakintza tekniko egokiak.

3. Ikerketa-erakundearen esku utzitako jardueren artean egon daitezke, besteak beste, itsas segurtasunarekin lotura duten datuak biltzea eta aztertzea –batez ere, prebentzioari begira–, jarduerak ez badute ikerketa-erakundearen independentzia kaltetzen eta ez badiote sortzen arauzko erantzukizunik edo erantzukizun administratiborik.

4. Estatu kideek, bakoitzak bere ordenamendu juridikoaren esparruan jardunez, bermatuko dute segurtasun-ikerketa gauzatzeko egoki den informazio guztia ematen zaiela bai haien ikerketa-erakundeko ikertzaileei, bai zeinahi ikerketa-erakundeko ikertzaileei, zeinaren esku utzi dituzten segurtasun-ikerketaren eginbeharrek. Eta, hala badagokio, ikerketa judiziala gauzatzearen ardura duten agintaritzekin elkarlanean egingo dute. Ikerlariok, horrenbestez, baimena izango dute:

a) libreki jotzeko ezein zona egokitara edo ezbeharra gertatu den lekura, baita zeinahi ontzitarra, hondoratzearen hondarretara edo egituratara ere, barne direlarik jitoan diren objektuak, zamak nahiz ekipamenduak;

b) bermatzeko frogen zerrenda berehala egingo dela, eta kontrolpean bilatzeko nahiz ateratzeko hondoratzearen hondakinak, jitoan diren objektuak edo azter daitezkeen bestelako edozein osagai eta substantzi;

c) eskatzeko b) idatz-zatian jasotako elementuak azter daitezela, eta libreki eskuratu ahal izateko lortutako emaitzak;

d) libreki eskuratzeko ontziren batekin, zeharbideren batekin, zamaren batekin, eskifaia-kideren batekin edo beste ezein

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

pertsonarekin, objektuekin, baldintzekin edo inguruabarrekin lotura duen zeinahi informazio egoki eta datu, VDRetatik datozenak barne; eta informazioa kopiatzeko eta erabiltzeko;

- e) libreki eskuratzeko biktimen gorpuei egindako azterketen emaitzak, baita gorpu horietako laginekin egiten diren proben emaitzak ere;
- f) eskatzeko eta libreki eskuratzeko ontzi baten eragiketetan parte hartu duten pertsonari edo bestelako ezein pertsona egokiri egindako azterketaren emaitzak, baita pertsona horien laginekin egindako proben emaitzak ere;
- g) lekukoei galdeketa egiteko, eta hori bere interesak direla eta segurtasun-ikerketak oztopatu dezakeen pertsonaren bat bertan ez dagoela egiteko;
- h) azterketen espedienteak eta egoki diren datu guztiak eskuratzeko, banderako estatuak, ontzien jabeak, ontziak sailkatzeko sozietateak edo zeinahi alderdi interesdunek bere esku dituenak, alderdi horiek edo horien ordezkariak estatu kidean egoitza badute;
- i) eskatzeko egoki diren estatuak agintari eskumendunen laguntza eta, bereziki, banderako estatuak eta portua zuzentzen duen estatuak ikuskatzaileena, kostazaintzako funtzionarioena, itsas trafikoaren zerbitzuko langileena, bilatze- eta salbamendutaldeena, praktikoena, edo itsasoko nahiz portuetako ezein langilerena.

5. Ikerketa-erakundea gai izango da berandu gabe erreakzionatzeko ezbehar bat jakinarazten zaionetik, eta baliabide nahikoak lortzeko, bere funtzioak modu independentean garatze aldera. Ikerketa-erakundeko ikertzaileek beharrezko independentzia-bermeak eskainiko dizkien estatusa izango dute.

6. Ikerketa-erakundeak batera gauzatu ahal izango ditu Zuzentarau hau betez ezartzen zaizkion eginbeharrak eta itsas ezbeharrez bestelako jazoeren gaineko ikerketa-lanak, betiere ikerketa horiek ez badute arriskuan jartzen erakundearen independentzia.

9. artikulua

Konfidentzialtasuna

95/46/EE Zuzentaraua betetzeaz gain, estatu kideek, beren ordenamendu juridikoen esparruan jardunez, zainduko dute jarraian aipatuko ditugun agiriak ez direla erabiltzen segurtasun-ikerketek bestelako xedeetarako, salbu eta estatu kideko agintaritzak eskumendunak zehazten badu agiri horiek zabaltzea interes publiko handikoa dela. Hona hemen, beraz, ezin argitaratu daitezkeen agiriak:

- a) segurtasun-ikerketa gauzatzean ikerketa-erakundeak egin edo jaso dituen lekukoaren testigantza guztiak eta bestelako aitortpenak, deskribapenak edo oharra;
- b) segurtasun-ikerketan testigantza eman duten pertsonen identitatea dakarten agiriak;

- c) itsas ezbehar edo jazoeran tartean izan diren pertsonen lotura duen informazioa, kontu handiko informazioa edo informazio pribatua bada, barne delarik pertsona horien osasun-egoerari buruzko informazioa.

10. artikulua

Lankidetzarako esparru iraunkorra

1. Estatu kideek Batzordearekin estu elkarlanean, lankidetzarako esparru iraunkorra ezarriko dute. Horren bidez haien ikerketa-erakundeak gai izango dira bata bestearekin elkarlanean aritzeko, betiere Zuzentarau honen xedea betetzeko beharrezkoa den neurrian.
2. Lankidetzarako esparru iraunkorraren barne-araudia eta antolamendu-modalitateak 19. artikuluko 2. paragrafoan jasotako arautze-prozedurarekin bat etorriz zehaztu behar dira.
3. Lankidetzarako esparru iraunkorraren barruan, estatu kideetako ikerketa-erakundeek adostuko dute, bereziki, zein diren elkarlanerako modalitate onenak honako xedeak betetze aldera:
 - a) ikerketa-erakundeei aukera ematea parteka ditzaten hondoratzearen hondakinei buruzko ikerketa teknikoak egiteko erabiliko diren instalazioak, dispositiboak eta ekipamenduak nahiz ontzietako ekipamenduak eta segurtasun-ikerketa gauzatzeko egoki diren beste objektu batzuk, barne delarik VDRetako eta beste dispositibo elektronikoen batzuetako informazioa ateratzea eta ebaluatzea.
 - b) bata besteari laguntzea edo bata besteari ematea egin behar zehatzak gauzatzeko beharrezkoak diren jakintza teknikoak;
 - c) informazio egokia lortzea eta partekatzea, ezbeharrei buruzko datuak aztertze aldera eta Erkidegoko segurtasun-gomendio egokiak lantze aldera;
 - d) printzipio komunak lantzea, segurtasun-gomendioen jarraipena egiteko eta ikerketa-metodoak aurrerakuntza tekniko eta zientifikoetara egokitze;
 - e) alerta azkarrak egoki kudeatzea (16. artikuluan jasota daude);
 - f) konfidentzialtasun-arauak ezartzea, nazioarteko arauak betetzeko elkar trukatzeko lekukoaren testigantzak eta datuen nahiz 9. artikuluan jaso diren bestelako agiriaren prozesamendua, barne direlarik hirugarren herrialdeei buruzko agiriak;
 - g) antolatzea, hala badagokio, ikertzaileentzako prestakuntza-jarduerak;
 - h) elkarlana sustatzea, bai hirugarren herrialdeetako ikerketa-erakundeekin, baita itsas istripuak ikertzen dituzten nazioarteko erakundeekin ere, Zuzentarau honetan araututako esparruetan;
 - i) segurtasun-ikerketa gauzatzen ari diren ikerketa-erakundeei egoki den informazio guztia ematea.

11. artikulua

Kostuak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Segurtasun-ikerketetan bi estatu kidek edo gehiagok parte hartzen dutenean, elkarrekiko jarduerak doakoak izango dira.
2. Segurtasun-ikerketan parte hartzen ez duen estatu kide baten laguntza beharrezkoa denean, estatu kideak ados jarriko dira sortutako gastuak ordaintzeko.

12. artikulua

Lankidetzaren interes handiak jokoan dituzten hirugarren herrialdeekin

1. Segurtasun-ikerketan, estatu kideak ahal den neurrian elkarlanean arituko dira interes handiak jokoan dituzten hirugarren herrialdeekin.
2. Zuzentarau hau betez estatu kide batek gauzatzen duen segurtasun-ikerketan interes handiak jokoan dituzten hirugarren herrialdeei edozein unetan parte hartzen utziko zaie, alde biak ados badaude.
3. Estatu kide batek laguntza eskaintzen badiu interes handiak jokoan dituen eta segurtasun-ikerketara egiten ari den hirugarren herrialde bati, horrek ez du eragingo Zuzentarau honetan xedatutako segurtasun-ikerketen eta txostenak egiteko baldintzen gain. Interes handiak jokoan dituen hirugarren herrialde batek bere gain hartzen badu ikertzaile nagusi izateko funtzioa estatu kide batek edo bat baino gehiagok parte hartzen duten segurtasun-ikerketan, estatu kideek erabaki dezakete segurtasun-ikerketara paralelorik ez egitea, itsas ezbeharrak eta jazoerak ikertzeko IMOren Kodearekin bat etorritik gauzatzen bada hirugarren herrialdeak zuzendutako segurtasun-ikerketara.

13. artikulua

Frogak zaintzea

Estatu kideek neurriak ezarriko dituzte bermatzeko Zuzentarau honen aplikazio-eremuko ezbehar eta jazoeretan tartean diren alderdiek haien esku dagoen guztia egiten dutela:

- a) babesteko hauetatik ateratako informazio guztia: mapa nautikoetatik, nabigazio-egunkarietatik, grabazioetatik eta bideo-zinta elektroniketatik nahiz magnetikoetatik, barne dela VDRetatik eta beste dispositibo elektronikoko batzuetatik ateratako informazioa, istripua gertatu aurretikoa, bitartekoa nahiz ondotikoa;
- b) eragozteko informazioaren gainean inork grabazioak egiten duela edo bestelako eraldatzerik egiten dela;
- c) Interferentziak eragozteko istripuari buruzko segurtasun-ikerketan arrazoiz eskumenduntzat har daitekeen beste material batekin;
- d) biltzeko eta arduraz zaintzeko segurtasun-ikerketetan ondorioak izan ditzaketen frogak guztiak.

14. artikulua

Istripuei buruzko txostenak

1. Zuzentarau hau betez gauzatzen den segurtasun-ikerketara orori buruz txostena argitaratu beharra dago. Txostena aurkezteko formatua ikerketa-erakunde eskumendunak zehaztuko du, I. eranskineko dagozkien atalei jarraituz.

Ikerketa-erakundeak erabaki dezake segurtasun-ikerketari buruz txosten sinplifikatua egin eta argitaratzea, baldin eta ikerketa ez bada itsas ezbehar larri edo oso larri bati buruzkoa eta haren emaitzek ez badute biderik ematen etorkizuneko ezbeharrak edo jazoerak prebenitzeko.

2. Ikerketa-erakundeek ahal duten guztia egingo dute 12 hilabeteko epean –ezbeharra gertatu den egunetik zenbatzen hasita– 1. paragrafoan aipatutako txostenak, txostenen ondorioak eta balizko gomendioak herritarren eta, bereziki, itsas sektore osoaren esku jartzeko. Ez bada posible behin betiko txostena garaitu aurkeztea, lehen aipatutako epean behin-behineko txostena argitaratuko da.

3. Ikertzaile nagusia den estatu kideko ikerketa-erakundeak Batzordeari bidaliko dio behin betiko txostenaren, txosten laburtuaren edo behin-behineko txostenaren ale bat. Horrez gain, kontuan izan beharko ditu Batzordeak behin betiko txostenen gain egin ditzakeen eta ondorioen funtsaren gain eraginik ez duten ohar teknikoak, egokien deritzon moduan txostenaren kalitatea hobetzekoak, Zuzentarau honen xedea betetzeko.

15. artikulua

Segurtasunari buruzko gomendioak

1. Estatu kideek zainduko dute hartzaileek behar bezala hartzen dituztela kontuan ikerketa-erakundeek segurtasunari buruz egiten dizkieten gomendioak, eta, hala badagokio, gomendioek jarraipen egokia dutela erkidegoko eta nazioarteko legeen arabera.
2. Hala badagokio, ikerketa-erakunde batek edo Batzordeak segurtasunari buruzko gomendioak egin ahal izango dituzte, oinarri hartuta egindako segurtasun-ikerketako datuen azterketa laburtua eta emaitza orokorrak.
3. Segurtasunari buruzko gomendioek ezin dute, inola ere, ezbehar baten erantzukizuna zehaztu ezta errua inori egotzi ere.

16. artikulua

Alerta azkarreko sistema

Bazter utzi gabe alerta azkarra emateko eskubidea, estatu kide bateko ikerketa-erakundeak Batzordeari berandu gabe jakinaraziko dio alerta azkarra emateko beharra, segurtasun-ikerketaren edozein fasetan, betiere, erabakitzen baldin badu Erkidegoan premiazko neurriak hartu behar direla etorkizunean ezbeharrik gertatzeko arriskua ekiditeko.

Beharrezko bada, Batzordeak ohartarazpen bat argitaratuko du gainerako estatu kideetako agintaritzak eskumenduntzat, itsas garraioaren sektorearentzat eta interesa izan dezaketen alderdi ororentzat.

17. artikulua

Itsas ezbeharrei buruzko Europako datu-basea

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Batzordeak Europako datu-base elektronikoa sortuko du, itsas ezbeharrei eta jazoerei buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko. Datu-basearen izena Itsas Ezbeharrei buruzko Informazioaren Europako Plataforma izango da (EMCIP, ingelesezko siglak).

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote datu-basean sartzeko eskubidea duten agintarien zerrenda.

3. Estatu kideetako ikerketa-erakundeek emango diote Batzordeari itsas ezbeharren eta jazoeren berri, II. eranskinean ageri den eredia betez. Era berean, segurtasun-ikerketak ematen dituen datuak igorriko dizkiote, EMCIP datu-basearen eskemaren arabera.

4. Batzordeak eta estatu kideek landuko dute datu-basearen eskema eta epe egokietan datuen berri emateko metodoa.

18. artikulua

Eskifaiarekiko bidezko tratua

Estatu kideek, estatuko legeekin bat etorriz, aplikatuko dituzte itsas istripuren bat gertatuz gero eskifaiak bidezko tratua jasotzeari buruzko IMOren Jarraibideetako xedapen egokiak.

19.

artikulua

Komitea

1. Itsas Segurtasunaren eta Itsasontziek eragindako Kutsaduraren Prebentziorako (COSS) laguntza izango du. Komite hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2099/2002 (EE) Erregelamendua ⁽¹⁾ betez sortu zen.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, Erabaki horretako 8. artikuluan xedaturikoa betez.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan adierazitako epea bi hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

20. artikulua

Zuzentze-eskumenak

Batzordeak Zuzentarau honetan jasotako definizioak eguneratzeko aukera du, baita Erkidegoko egintzei eta IMOren tresnei buruzko erreferentziak ere, horiek egokitzeko indarrean sartu diren Erkidegoko edo IMOko neurrietara. Betiere, Zuzentarau honetan ezarritako mugak errespetatuko ditu.

Zuzentarau honetako funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak —Zuzentaraua osa dezakete— 19. artikuluko 3. paragrafoan jaso den kontrolpeko arautze-prozedura betez ezarriko dira.

Batzordeak eranskinetan ere egin ditzake aldaketak, aipatutako prozedura betez.

Itsas ezbeharrek eta jazoerak ikertzeko IMO Kodearen aldaketak Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo gera daitezke, 2099/2002 (EE) Erregelamenduko 5. artikulua aplikatuz.

21. artikulua

Neurri gehigarriak

Zuzentarau honetako xedapen bat berak ere ez du galaraziko estatu kide batek hartzea Zuzentarau honek arautzen duen eremutik kanpoko itsas segurtasunaren gaietako neurri gehigarriak, baldin eta, neurri aipatuak ez badira Zuzentarau honen kontrakoak, ez badute eragin negatiborik Zuzentarau honen xedea betetzearen gain eta arriskuan jartzen ez badute Zuzentarau honen xedeen gauzatzea.

22. artikulua

Zigorrak

Estatu kideek zehaztuko dute Zuzentarau hau betez nazioan ezarri diren xedapenak hausteagatiko zigorren araubidea, eta ezarriko dituzte horiek aplikatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak. Zigor aurrekusiak izan behar dira eraginkorrak, neurrikoak eta disuasiokoak.

23. artikulua

Aplikazioari buruzko txostena

Batzordeak Zuzentarau honen aplikazioari eta Zuzentarau hau betetzeari buruzko txostena aurkeztuko die, bost urtetan behin, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, eta, beharrezkoa bada, neurri berriak proposatuko ditu, betiere, txostenean jasotako gomendioak kontuan hartuz.

¹ L 324 EO, 2002.11.29koa, 1. or.

24. artikulua

Indarreko xedapenen aldaketa

1. Bertan behera geratzen da 1999/35/EE Zuzentarauko 12. artikulua.
2. Bertan behera geratzen da 2002/59/EE Zuzentarauko 11. artikulua.

25. artikulua

Transposizioa

1. Estatu kideek indarrean jarriko dituzte, beranduenez, 2011ko ekainaren 17an, Zuzentarau honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren legezko xedapenak, arauzko xedapenak eta xedapen administratiboak.

Estatu kideek xedapen aipatuak ezartzen dituztenean, Zuzentarau hau aipatuko dute edo, bestela ere, Zuzentaraua jasoko da xedapenekin batera argitalpen ofizialean. Estatu kideek erreferentzia aipatuaren modalitateak ezarriko dituzte.

2. Estatu kideek Batzordeari helaraziko diote Zuzentarau honek arautzen duen eremuaren barruan hartzen dituzten barne-zuzenbidezko xedapen nagusien testua.

26. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau indarrean sartuko da Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeiei egunera.

27. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira Zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Presidentea,
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean,

Presidentea,
P. NECAS

ANEXO I

Contenido de los informes de investigación de seguridad

Encabezamiento

En él se manifestará el objetivo único de la investigación de seguridad, y se indicará que una recomendación sobre seguridad no puede dar lugar en ningún caso a la presunción de culpa o de responsabilidad y que la elección del contenido y el estilo del informe se han efectuado sin intención de que este pueda ser utilizado en un procedimiento judicial.

(El informe no deberá hacer referencia a los testimonios de los testigos, ni podrá establecer vínculo alguno entre las personas en él mencionadas y las personas que hayan testificado en el curso de la investigación de seguridad.)

1. SÍNTESIS

En este apartado se expondrán los hechos del siniestro o incidente marítimo (descripción de lo ocurrido, con indicación de fecha y hora, localización y desarrollo) y se indicará si se produjeron muertes, lesiones, daños al buque, a su carga, a terceros o al medio ambiente.

2. DATOS OBJETIVOS

Este apartado contiene una serie de secciones independientes en las que se proporciona el número suficiente de datos que el organismo de investigación considere objetivamente motivados para el análisis correspondiente y la facilitación de la comprensión del caso.

En dichas secciones se incluirán, en particular, los siguientes datos:

2.1. Datos del buque

Pabellón/registro,

Identificación,

Características principales,

Propiedad y gestión,

Pormenores de construcción,

Dotación mínima de seguridad,

Carga autorizada.

2.2. Pormenores del viaje

Puertos de escala,

Tipo de viaje,

Información relativa a la carga,

Dotación.

2.3. Información relativa al siniestro o incidente marítimo

Tipo de siniestro o incidente marítimo,

Fecha y hora,

Situación y localización del siniestro o incidente marítimo,

Entornos exterior e interior,

Operaciones del buque y tramo del viaje,

Lugar a bordo,

Datos relativos a factores humanos,

Consecuencias (para las personas, el buque, la carga, el medio ambiente, etc.).

2.4. Intervención de las autoridades en tierra y reacción de los servicios de emergencia

¿Quién ha intervenido?,

Medios utilizados,

Rapidez de la reacción,

Medidas adoptadas,

Resultados obtenidos.

3. DESCRIPCIÓN DETALLADA

En este apartado se efectuará una reconstrucción de lo ocurrido, respetando la secuencia cronológica de los acontecimientos antes, durante y después del siniestro o incidente marítimo e indicando el papel de cada elemento involucrado (personas, materiales, medio ambiente, equipamiento o agente externo). La descripción detallada cubrirá un período cuya amplitud dependerá del momento en el que se hayan producido los acontecimientos accidentales específicos que hayan contribuido directamente al acaecimiento del siniestro o incidente marítimo. En este apartado también se incluirán todos los detalles pertinentes de la investigación de seguridad llevada a cabo, incluidos los resultados de los exámenes o pruebas.

4. ANÁLISIS

Este apartado contiene una serie de secciones independientes en las que se proporcionará un análisis de cada acontecimiento vinculado al accidente, acompañado de observaciones relativas a los resultados de los exámenes o pruebas llevados a cabo durante la investigación de seguridad y a las medidas de seguridad que ya se hubieran adoptado para prevenir siniestros marítimos.

Las secciones tratarán cuestiones como las que se indican a continuación:

- contexto del acontecimiento accidental y su entorno,
- errores y omisiones humanos, acontecimientos relacionados con materiales peligrosos, factores medioambientales, fallos de los equipos y factores externos,
- otros factores que hayan contribuido y guarden relación con las funciones desempeñadas por personas concretas, las operaciones a bordo, la gestión en tierra o elementos normativos.

El análisis y las observaciones permiten elaborar conclusiones lógicas en las que quedan expuestos todos los factores involucrados y, en particular, aquellos que implican riesgos y para los cuales se destinan unos medios de prevención de accidentes o de supresión y reducción de las consecuencias considerados ineficaces o inexistentes.

5. CONCLUSIONES

Este apartado permite hacer la recapitulación de los factores involucrados y los medios de protección ineficaces o inexistentes (materiales, funcionales, simbólicos o de procedimiento) que exigen la adopción de medidas de seguridad para prevenir siniestros marítimos.

6. RECOMENDACIONES SOBRE SEGURIDAD

Cuando proceda, en este apartado del informe se recogerán las recomendaciones sobre seguridad formuladas a partir del análisis y las conclusiones, en relación con ámbitos concretos (legislación, diseño, procedimientos, inspección, gestión, salud y seguridad en el trabajo, formación, reparaciones, mantenimiento, asistencia en tierra y reacción de los servicios de emergencia).

Las recomendaciones sobre seguridad tienen como destinatario a los agentes más indicados para ponerlas en práctica (armadores, gestores, organizaciones reconocidas, autoridades marítimas, servicios de tráfico marítimo, servicios de emergencia, organizaciones marítimas internacionales e instituciones europeas), con el fin de prevenir siniestros marítimos.

También figurarán en este apartado las recomendaciones provisionales sobre seguridad que hayan podido formularse o cualesquiera otras medidas de seguridad adoptadas durante la investigación de seguridad.

7. APÉNDICES

Cuando proceda, se adjuntará al informe, en formato impreso o electrónico, la información que se señala a continuación (la lista no es exhaustiva):

- fotografías, imágenes de vídeo, grabaciones sonoras, cartas náuticas, dibujos,
 - normas aplicables,
 - terminología técnica y abreviaturas utilizadas,
 - estudios de seguridad específicos,
 - otras informaciones.
-

ANEXO II

DATOS DE NOTIFICACIÓN DE SINIESTROS O INCIDENTES MARÍTIMOS

(Parte de la Plataforma europea de información sobre siniestros marítimos)

Nota: El subrayado de los números señala los apartados en los que deben comunicarse los datos relativos a cada buque implicado en todo siniestro o incidente marítimo que afecte a más de un buque.

01. Estado miembro competente/persona de contacto
02. Estado miembro investigador
03. Función asumida por el Estado miembro
04. Estado ribereño afectado
05. Número de Estados con intereses de consideración
06. Estados con intereses de consideración
07. Entidad notificadora
08. Hora de la notificación
09. Fecha de la notificación
10. Nombre del buque
11. Número IMO/letras distintivas
12. Pabellón
13. Tipo de siniestro o incidente marítimo
14. Tipo de buque
15. Fecha del siniestro o incidente marítimo
16. Hora del siniestro o incidente marítimo
17. Situación-latitud
18. Situación-longitud
19. Localización del siniestro o incidente marítimo
20. Puerto de salida
21. Puerto de destino
22. Dispositivos de separación del tráfico
23. Tramo del viaje
24. Operaciones del buque
25. Lugar a bordo
26. Víctimas mortales:
 - Tripulación
 - Pasajeros
 - Otras víctimas
27. Lesiones graves:
 - Tripulación
 - Pasajeros
 - Otras víctimas

- 28. Contaminación
 - 29. Daños sufridos por el buque
 - 30. Daños sufridos por la carga
 - 31. Otros daños
 - 32. Descripción sucinta del siniestro o incidente marítimo
 - 33. Breve descripción de las razones para no realizar una investigación de seguridad.
-